



**ZIENTZIA, BERRIKUNTZA ETA UNIBERTSITATE
MINISTERIOAREN "JAKINTZA SORTZEKO
PROIEKTUAK" 2024ko DEIALDIARI LOTUTAKO
EHUn DOKTOREAK PRESTATZEKO DOKTORATU
AURREKO KONTRATAZIO DEIALDIA, IZAPIDETZE
AURRERATUKOA (FPI 2025)**



MINISTERIO
DE CIENCIA, INNOVACIÓN
Y UNIVERSIDADES



Cofinanciado por
la Unión Europea



AGENCIA
ESTATAL DE
INVESTIGACIÓN

ERABAKIA, 2025eko URRIAREN 10ekoa, IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDEARENA, NON ARGITARATZEN BAITA, ZIENTZIA, BERRIKUNTZA ETA UNIBERTSITATE MINISTERIOAK EHUn "JAKINTZA SORTZEKO PROIEKTUEN" 2024ko DEIALDIAN EMANDAKO LAGUNTZEI LOTUTAKO DOKTOREAK PRESTATZEKO DOKTORATU AURREKO KONTRATAZIO DEIALDIA, ALDEZ AURRETIK IZAPIDETZEKO

Urriaren 27ko CIN/1025/2022 Aginduaren bidez, Ikerketa Zientifiko eta Teknikoko eta Berrikuntzako 2021-2023 Estatuko Planaren zenbait programa eta azpiprogramari dagozkien laguntza publikoak emateko oinarri arautzaileak onartu ziren. Programa eta azpiprograma horiek kudeatzea Estatuko Ikerketa Agentziari dagokio (abenduaren 26ko CNU/1459/2023 Aginduak eta apirilaren 4ko CNU/307/2024 Aginduak aldatu zuten), eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren, 2024ko urtarrilaren 12an eta apirilaren 9an, hurrenez hurren.

Oinarri arautzaile horiek aplikatuz, 2024ko abenduaren 9ko Aginduaren bidez, Zientzia, Teknika eta Berrikuntza Ikerketarako 2024-2027 Estatuko Planaren esparruan, «Ezagutza Sortzeko Proiektuetarako» eta proiektu horiei lotutako doktoratu aurreko ikertzaileak prestatzeko jarduketetarako laguntzak emateko prozeduraren 2024. urterako alde aurreko izapidetzea egiteko deialdia onartu zen. (Dirulaguntzen Datu-base Nazionalaren identifikatzailea: 801943; 2024ko abenduaren 12ko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratutako laburpena).

Deialdiaren 12.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, UPV/EHUk, EZAGUTZA SORTZEKO PROIEKTUETARAKO ETA PROIEKTU HORIEI LOTUTAKO DOKTORATU AURREKO IKERTZAILEAK PRESTATZEKO JARDUERETARAKO 2024 LAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURAREN BEHIN-BEHINEKO EBAZPEN PROPOSAMENAREN I. eranskinean identifikatutako hogeita hamar proiektuen erakunde onuradun den aldetik, proiektu horiei modu unibokoan lotutako doktoratu aurreko ikertzaileak prestatzeko kontratuak hautatu eta esleitzeko deialdi hau argitaratzen du.

Deialdi honetan kontratuak esleitzeko, ezinbestekoa da Estatuko Ikerketa Agentziaren Lehendakariak ZIENTZIA, BERRIKUNTZA MINISTERITZAK EHU "JAKINTZA SORTZEKO PROIEKTUEN" 2024 deialdiko laguntzak emateko behin betiko ebazpena argitaratzea. EHUri ezin izango zaio inolako erantzukizunik egotzi behin-behinean emandako proiektuen bat(zuk) behin betiko ebazpenean laguntzaren onuradun ez bada eta, beraz, ez badagokio proiektu horretarako doktoratu aurreko langilerik kontratatzea

Deialdi hau Estatuko Ikerketa Agentziak finantzatzen du (MICIN/AEI/10.13039/501100011033), Europako Gizarte Funtsaren ko-finantzaketarekin batera, Ministeritzaren Aginduan adierazten den bezala.

1. Oinarria. HELBURUA

Deialdi honen xedea doktoretza-aurreko ikertzaileak ebaluatzea eta hautatzea da Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU) doktore titulua lor dezaten, deialdi honen I. *eranskinean* deskribatutako ikerketa proiektuen bakar bati lotuta.

Eranskin horretan deskribatutako proiektuak bat datoz «Jakintza sortzeko proiektuak 2024» izeneko deialdiaren behin-behineko ebazpenarekin eta proiektu horiei lotutako doktorego aurreko ikertzaileak prestatzeko jarduketekin.

Deialdi honen babespeko kontratazioa doktoratu aurreko kontratuen bidez egingo da, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legearen (aurrerantzean, ZTBL) 21. artikuluan eta Langileen Estatutuan ezarritakoaren arabera..

Kontratu mota horiek doktoratu ondoko orientazio-aldia (POP) barne hartzen dute, ikertzaile horien hobekuntza eta espezializazio profesionalerako, gehienez ere 12 hilabetez, betiere doktoretza doktoratu aurreko kontratua gauzatzen den bitartean lortzen bada. Hori guztia Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren arabera arautzen da, lege hori irailaren 5eko 17/2022 Legeak aldatu zuelarik. Hori dela eta, kontratatuko den pertsona Ikerketako Errektoreordetzari jakinarazi beharko diote (rrhh-inves.dgi@ehu.eus) tesi-defentsaren eguna, gutxienez 15 egun lehenago, eta tesia irakurri ondoren defentsa-akta bidali beharko dute helbide horretara.

2. Oinarria. ARAUBIDEA

Deialdi honetan berariaz jaso ez diren alderdiei dagokienez, Zientzia, Teknika eta Berrikuntza Ikerketarako 2024-2027 Estatuko Planaren esparruan, "[Ezagutza sortzeko proiektuetarako](#)" eta proiektu horiei lotutako doktoratu aurreko ikertzaileak prestatzeko jardueretarako laguntzak emateko 2024. urterako deialdia onartzen duen Aginduari jarraituko zaio (laburpena: Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2024/12/9koa).

3. Oinarria. ONARPEN-IRIZPIDEAK

Deialdi honetan esleitzen diren kontratuen onuradun izan daitezke deialdi honetako 4. oinarrian deskribatutako baldintzak betetzen dituzten unibertsitateko tituludunak, beti ere I. eranskinean zerrendatutako eta deskribatutako proiektuen ikertaldeetako kideren baten zuzendaritzapean eta eranskin horretan jasotakoarekin bat datorren doktorego aurreko kontratuan oinarrituz.

Doktorego tesien gaiak eta lanpostu bakoitzerako baldintza espezifikoak *I. eranskinean* zerrendatutako proiektuen zerrendan jaso eta deskribatuko dira.

Hautagai bakoitzak eskabide bakarra aurkeztu ahal izango du. Eskabide bakoitza I. eranskinean jasotako zerrendako proiektu bakar bati buruzkoa izango da. Ikertzaile batek bi proiektu edo gehiagotarako eskaera deialdi berean aurkeztuz gero, eskatzailea proiektu guztietatik kanpo geratuko da.

4. Oinarria. ESKATZAILEEN BETEKIZUNAK

4.1. Deialdi honetan parte hartzeko, eskatzaileek ondoren zerrendatzen diren baldintza guztiak bete behar dituzte **eskaria aurkeztzen denean**:

- a. EHUko doktorego programa batean jardunaldi osorako matrikulatuta egotea 2025/2026 ikasturtean, eskatutako proiekturako *I. eranskinean* zerrendatutakoekin bat datorrena.

Eskabidea aurkeztzen den unean EHUko doktorego programa horretan matrikulatuta ez dauden hautagaiek ziurtagiri akademiko pertsonala izan beharko dute, lortutako kalifikazio guztiak eta horien data jasotzen dituenak. Ziurtagirian adierazi behar da egindako ikasgai eta kreditu guztiek beharrezko titulazio osoa

osatzen dutela eta eskatzaileak hirugarren zikloko ikasketak egiteko ahalmena duela.

Era berean, gainerako baldintzak betetzen dituzten eta masterra 2026ko martxoaren 31 baino lehen amaitzea aurreikusita duten eskaerak ere ebaluatuko dira. Hautatua izanez gero, kontratua egiteko ezinbestekoa izango da master-titulua lortu eta doktoregoko matrikula egitea 2026.03.31 baino lehen.

- b. Batezbesteko nota 6,5 puntu edo gehiago izatea doktoregoan sartzeko titulu gisa aurkeztutako lizentziatura- edo gradu-espediente akademikoan. Ondorengo titulazio hauen kasuan, gutxiengo nota hori 6 puntura jaitsiko da: Finantza eta Aseguruetako Gradua, Meatzaritza eta Energía Teknologiaren Ingeniaritzako Gradua, Ingeniaritza Elektrikoko Gradua eta Geomatika eta Topografia Ingeniaritzako Gradua.
- c. Espediente akademikoaren batez bestekoa kalkulatzeko, doktoregora sartzeko titulutzat aurkeztutako lizentziatura edo gradua besterik ez da kontuan hartuko, beste espezialitate batzuetako irakasgaietan lortutako notak eta masterreko ikasketetako notak aintzat hartu gabe.

Espediente akademikoak 1 eta 10 arteko batezbesteko nota jasoko ez balu, espediente akademikoaren batezbestekoa kalkulatu da, irakasgai bakoitzean lortutako kalifikazioa irakasgai bakoitzaren kreditu kopuruarengatik biderkatuz eta lortutako produktuen batura, gainditutako kreditu guztien kopuruarengatik zatituz.

Baliozkotu edo egokitu dituen unibertsitateak kalifikatu ez dituen baliozkotutako edo egokitutako ikasgaien kasuan, jatorrizko ikastetxean edo ikasketetan lortutako kalifikazioak zenbatuko dira, beti ere dokumentalik egiaztatuta. Dokumentalik egiaztatu ezin balira, "nahiko" kalifikazioaz gainditu direla ulertuko da.

- d. I. eranskinean proiektu bakoitzerako zehaztutako baldintzak betetzea.

4.2. **Kontratua sinatzerakoan** eskatzaileak 2025/2026 ikasturterako UPV/EHUko doktorego-programan matrikulatuta egon beharko du, eskabidean agertzen diren tesi-zuzendariekin batera. Eskatzailearen kontratua tesi-zuzendariaren sailari atxikiko zaio.

Europar Batasuneko herritarrak ez diren ikertzaile atzerritarrak kontratatzeke, Espainian bizitzeko eta lan egiteko baimena lortu beharko dute, indarrean dagoen araudiaren arabera.

Kontratua sinatzen den egunean hautagaiak baldintza horietariko bat betetzen ez badu, kontratua ezin izango da formalizatu.

4.3. Espainiako edo atzerriko edozein unibertsitatetan **doktore-titulua duten pertsonak ezin izango dira eskatzaile izan**, ezta deialdi honen bidez sustatzen den kontratazioan sartu ere.

5. Oinarria. KONTRATUEN EZAUGARRIAK.

5.1. Deialdi honen bidez hautatuko diren pertsonak ZTBLren 21. artikulua araberak kontratatuko dira. Kontratutako langileak prestatzen ari diren doktoratu aurreko

ikertzailetzat hartuko dira. Onuraduna tesi-zuzendariaren sailean sartuko da, eta bertan garatuko du doktorego-tesia.

5.2. Kontratua lanaldi osokoa izango da eta doktorego tesia egitea izango du xede, I. eranskinean zerrendatutako proiektuetako baten esparruan.

5.3. Kontratuak gehienez lau urteko iraupena izango du, eta kontratua gauzatzeko epea ikertzaile kontratatua UPV/EHUn lanean hasten den egunean hasiko da, Ministeritzaren Aginduaren 25.7 artikuluan betearazpen-epea eteteari eta luzatzeari buruz xedatutakoari kalterik egin gabe.

Hala ere, kontratua %33ko desgaitasuna edo handiagoa duen pertsona batekin hitzartzen denean, kontratuaren gehieneko iraupena sei urtetakoa izan dezake, luzapenak barne, ikerketa-jardueraren ezaugarriak eta jardueraren mugen maila kontuan hartuta.

Ikertzaile bat ere ezin izango da kontratatu modalitate horren bidez, erakunde berean edo beste batean, lau urte baino gehiagorako, aurreko lerrokadan adierazitako desgaitasunen bat duten pertsonen kasuan izan ezik; kasu horietan, denbora ezin izango da sei urtetik gorakoa izan.

5.4. Aldi baterako lanerako ezintasunak, haurdunaldiko arrisku egoerak, amatasunak, umeen adopzioa edo harrerak, edoskitzea eta aitatasunak gelditu egingo dute epearen zenbaketa kontratuaren iraupenari dagokionez. Hori dela eta, laguntza honen onuradunek EHUKo Ikerketako Errektoreordetzari jakinarazi beharko diote lehenbailehen (rrhh-inves.dgi@ehu.eus) eta beti ere 10 egun balioduneko epean, etetea eragin duen gertaera-egunetik zenbatzen hasita.

5.5. Deialdi honetarako formalizatzen diren kontratuen ordainsaria Ministeritzaren Aginduaren 12. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriko da. Honek bere aplikazio-eremuko hitzarmen kolektiboetan kategorია baliokideetarako finkatutako soldataren % 75eko gutxieneko ordainsaria ezartzen du, edozein urtetarako. Aurreko ordainsariak ezartzeko, Estatuko Administrazio Orokorreko lan-kontratuko langileen hitzarmen bakarrean jasotako soldata-taulako lan-kontratuko langileen M3 lanbide-taldeari dagokion kategorია hartuko da gutxieneko erreferentziatzat.

Bestalde, kontuan hartuko da UPV/EHUKo Irakasle eta Ikertzaileen Akordioa, aldi baterako ikertzaileen araudia egokitzei buruzkoa, doktoratu aurreko kontratuaren modalitatean eta Espainiako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza sisteman sartzeko kontratuaren modalitatean (Gobernu Kontseiluaren 2021eko abenduaren 16ko akordioa), non kolektibo horrek jaso beharreko gutxieneko ordainsaria ezartzen baita.

5.6. Deialdi honen bidez aukeratutako ikertzaileek ez dute UPV/EHUrekin lan kontratuaren bidezko harreman egonkorrik izango, eta aldi baterako kontratu harreman hori amaituko da kontratuaren iraupenari dagokion aldia igarotakoan edo 12. oinarrian ezarritako beste edozein arrazoi gertatzerakoan.

6. Oinarria. DOKTORATU AURREKO IKERTZAILEAK PRESTATZEKO JARDUERAK FINANTZATZEA

6.1. Finantzatu beharreko jardueren ezaugarriak eta laguntzen araubide ekonomikoa honako agindu honetan ezarritakoak izango dira: "Ezagutza Sortzeko Proiektuetarako" eta proiektu horiei lotutako doktoratu aurreko ikertzaileak prestatzeko jardueretarako laguntzak emateko prozeduraren 2024. urterako alde aurreko deialdia onartzen duen aginduan ezarritakoak.

Deialdi honen bidez, kontratazio kostuak finantzatuko dira, kontratuaren amaierari dagokion kalte ordainaren kostua barne, baita beste I+G zentro batzuetan egonaldiak egitearen ondoriozko gastuak ere, eta doktorego ikasketetako matrikulak eragindako gastuak. Zehazki, Ministeritzaren Aginduaren 12, 13. eta 14.5 artikuluetan arautzen dira kontzeptu finantzarriak, gastu finantzarritzat honako hauek jo dituelarik:

- a. Ordainsari gordinak.
- b. Enpresaren kontura egin beharreko gizarte segurantzako kotizazioa.
- c. Beste I+G zentroetan egonaldiak egitearen ondoriozko gastuak.
- d. Doktorego ikasketetako matrikula gastuak.

6.2. Ministeritzaren Aginduaren 12.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratuaren ordainsaria ezin izango da AGE Hitzarmeneko M3 lanbide-talderako finkatutako soldataren % 75 baino txikiagoa izan.

6.3. Beste I+G zentroetan egonaldiak egiteak eta doktorego ikasketetako matrikulak eragindako gastuak estaltzeko laguntzari dagokionez, laguntzaren zenbateko osoa 7.000 eurotako izango da, eta Ministeritzaren Aginduaren 12.5 artikuluan ezarritakoari egokitu beharko zaio.

Ikerketa Errektoreordetzak ofizioz itzuliko ditu urtero doktorego-irakaskuntzen matrikula-gastuak (prestakuntza akademikoaren gastuak bakarrik), saldo nahikoa dagoen bitartean, eta ezin izango dira gainditu Euskal Autonomia Erkidegoak unibertsitate publikoentzat unibertsitateko ikasketa-zerbitzuak emateagatiko ezarritako prezio publikoen gehieneko zenbatekoak. Gelditzen den zenbatekoa I+Gko beste zentro batzuetan egonaldiak egitearen ondoriozko gastuak ordaintzeko erabili ahal izango da

Egonaldiek gutxienez hilabeteko iraupena izan beharko dute, etenik gabe, zentro hartzailean sartzen diren egunetik zenbatzen hasita eta laguntza gauzatzeko epearen barruan, bai doktoratu aurreko etapan, bai POP fasean.

Beste I+G zentro batean egonaldia egin nahi duten ikertzaileek Ikerketa Errektoreordetzari (rrhh-inves.dgi@ehu.eus) jakinarazi beharko diote egonaldia hasi baino bi hilabete lehenago gutxienez (oporraldiak zenbatu gabe), jarraitu beharreko prozeduraren berri eman diezaien.

Egonaldiak finantzatzeko laguntzari dagokionez, Aginduaren 13.5 artikulua ezarritakoaren arabera, 11.3.b artikulura igortzen duenak, gastu finantzarriak bi kontzeptu izan ditzake bere baitan:

1. Ostatua eta mantenua:

- a) Estatuan 30 egun natural, edo atzerriko egonaldietan hiru hilabete baino gehiago irauten ez duten egonaldien kasuan, ostatu- eta mantenu-gastu finantzarriak

EHUren berezko araudiaren arabera izango dira (2024ko otsailaren 25eko ebazpena, zerbitzuagatiko kalte-ordainei buruzkoa).

- b) "a" puntuan adierazitakoak baino iraupen luzeagoko egonaldien kasuan, mantenu eta ostatu zenbatekoak 50 euro eguneko izango dira I+G zentro nazionaletan egiten diren egonaldien kasuan, eta 65 euro eguneko atzerriko I+G zentroetan egiten diren egonaldientzat. Gastuak egiaztatze, harrerako I+G zentroak emandako egonaldiaren ziurtagiria aurkeztu beharko da eta Informazio horrek bat etorri beharko du bidaien datekin.

2. Lokomozioa, bisatua eta istripu eta medikuntza aseguruak:

Garraio- edo lokomozio-gastuengatiko kalte-ordainak EHUren berezko araudian xedatutakoaren arabera arautuko dira (2024ko otsailaren 25eko ebazpena, zerbitzuagatiko kalte-ordainei buruzkoa).

Bertan ezartzen denez, bidaiak, ahal dela, garraio publiko kolektiboan eta turista-klasean egingo dira. Bidaietan gastatutako zenbatekoak jatorrizko fakturekin, tiketekin, edota txartelekin, eta bankuko egiaztagiriekin justifikatuko dira.

Laguntza hauen babesean atzerrira joaten diren doktoratu aurreko ikertzaileek bidaiako laguntza-aseguru bat izan beharko dute nahitaez, gaixotasunagatiko eta istripuagatiko osasun-estaldurarekin eta aberriratzeko estaldurarekin. Egonaldia Europako Osasun Txartelak baliorik ez duen herrialde batetan egiten bada, aseguruaren kostua laguntza honi egotzi ahal izango zaio. Kasu horietan, [IBILI Berezi](#) poliza bat edo estaldura baliokideak dituen beste bat kontratatu beharko da.

Egonaldia Europako Esparru Ekonomikoko lurralde batean, Erresuma Batuan edo Suitzan egiten bada, indarrean dagoen Europako Osasun Txartela eduki beharko da eta [IBILI-EHU](#) poliza edo antzeko beste bat kontratatu. Laguntzak ez du aseguruaren kostua estaltzen kasu horietan.

Bisatuari dagokionez, horren kostua gastu hautagarritzat jotzen da. Hala ere, ez dira estaltzen hura lortzeko izan diren bidaiagastuak.

6.4. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko eta sozietateen gaineko zergaren, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren legeak partzialki aldatzen dituen azaroaren 28ko 35/2006 Legearen 17.1.d artikuluan ezarritakoaren arabera, atal honen xede diren zuzkidura ekonomikoak, unibertsitateetan eta ikerketa-zentroetan aldi baterako egonaldiak egitearen ondoriozko lokomozio-, mantenu- eta egonaldi-gastuak konpentsatzea xede dutenak, prestatzen ari diren doktoratu aurreko ikertzaileen ikerketa-prestakuntza osatzeko atxikitakoez bestelakoak, ez dira lan-etekintzat hartuko, eta, beraz, ez dute Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga ordaindu beharrik izango.

7. Oinarria. ESKARIAK AURKEZTEKO MODUA

7.1. **Eskaria aurkezteko tokia eta modua:** Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan eta Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko idazkari nagusiaren 2024ko irailaren 11ko Ebazpenean ezarritakoaren arabera, eskabideak UPV/EHUren <https://egoitza.ehu.eus> egoitza elektronikoaren bidez bakarrik aurkeztuko dira, eta "ESKAERA" eremuan: **"FPI 2025"** jarri

behar da eta destinoko atalean: **"Ikerketa errektoreordetza – Giza Baliabideak (U02000381)"**.

Horretarako, egoitza elektronikoa jasotako identifikazio- eta sinadura-bideetako edozein erabili ahal izango da, hala nola BakQ, NAN elektronikoa edo Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionalaren FNMT-CERES ziurtagiria. Izenperen ziurtagiri profesionala hodeian duzula "Ziurtagiri digitalak" aukeraren bidez sartzeko, beharrezkoa da profesionalentzako txartel birtuala hodeian instalatuta izatea eta saioaren hasiera egitea.

Salbuespen gisa, **Espainiako lurraldean bizi ez direla egiaztatzen duten hautagaiek soilik** eskabidea posta elektronikoz aurkeztu ahal izango dute, pre-postdoc.dgi@ehu.eus helbidera bidaliz, gaian **"FPI 2025"** adierazita. (deialdiaren 6.2 oinarrian eskatutako dokumentazio guztia, PDF formatuan).

Espainiako lurraldean bizi direnen eskaerak bide horretatik jasotzen badira "ez aurkeztutzat" hartuko dira, eta automatikoki prozesutik kanpo geratuko dira.

7.2. Eskabideak aurkezteko epea 2025eko urriaren 11an hasiko da, eta 2025eko urriaren 31ean amaituko da, biak barne.

7.3. Beharrezko dokumentazioa: Ondoko dokumentu hauek aurkeztuko dira:

- a) **Eskabide inprimakia**, Ikerketaren Arloko Errektoreordetzaren, aurrerantzean IAE, webgunean eskuragarri dagoen eredu normalizatuarekin bat etorrita. Bertan, deialdi honen I. eranskinean deskribatutako ikerketa-proiektua identifikatuko da.
- b) Doktoregora sarbide ematen duen titulazio edo titulazioetako **ziurtagiri akademiko ofiziala**, non lortutako kalifikazio guztiak eta horiei dagozkien datak agertzen diren. Ikasketa horiek EHUn egin dituen eskatzaileak ez du dokumentu hau aurkeztu beharrik izango.

Gainera, graduiko ikasketak atzerrian egin badira, partzialki ala osorik, atzerrian egindako unibertsitate-titulazioen **batezbesteko nota baliokidearen ziurtagiria** aurkeztu beharko da, Hezkuntza eta Lanbide Hezkuntzako Ministeritzak emana. Agiri hau ondoko esteka honen bidez eskura daiteke:

<https://sede.educacion.gob.es/sede/login/inicio.jjsp?idConvocatoria=818>

- c) Eskatzailearen **curriculum vitae**, curriculum vitae normalizatuaren (CVN) formatuan. Eskatzaileek online editatu ahal izango dute <https://cvn.fecyt.es/editor/> estekaren bitartez.
- d) **NANaren, AIZren edo pasaportearen** fotokopia.
- e) Zientziari, Teknologiari eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen 21. artikuluan aurreikusitako doktoratu aurreko kontratuaren modalitatean kontratatuta ez egotearen erantzukizunpeko adierazpena, eta, hala bada, kontratuaren iraupena egunetan adierazi beharko da. Eredua eskuragarri IAEren webgunean.
- f) Doktore titulua ez duela dioen erantzukizunpeko adierazpena. Eredua eskuragarri IAEren webgunean.
- g) Hala badagokio, I. eranskinean deskribatutako hautagaien berariazko betekizunak egiaztatzen dituen dokumentazioa.

8. Oinarria. ONARPEN, EBALUAZIO ETA HAUTAKETA PROZESUA

8.1. **Onarpena.** Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, jasotako eskabideen hautagarritasuna aztertuko da, 4. oinarrian ezarritako baldintzak betetzen direla bermatuz.

IAEk webgunean argitaratuko du onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko ebazpena. Eskatzaileek 10 egun balioduneko epea izango dute, aipatutako ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, eskabidea zuzentzeko edo eskatzen zaizkien dokumentuak aurkezteko. Zuzenketa hori deialdi honen 7. oinarrian eskabideak aurkezteko ezarritako bide berberetatik egin beharko da.

Epe hori igaro eta aurkeztutako dokumentazio berria aztertu ondoren, IAEk onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrenda argitaratuko du, eta ebaluatuko direnak adieraziko ditu.

Onartutako eta baztertutako eskabideen behin-behineko zerrenda argitaratzearekin batera, aurretiz matrikulatuta ez dauden hautagaiek doktorego-programan izena emateko duten epea adieraziko da.

8.2. **Ebaluazioa.** Eskaerak Ministeritzaren Aginduaren 12. artikuluan adierazten den moduan ebaluatuko dira, honako irizpide hauei jarraituz:

1. irizpidea. Hautagaiaren ibilbide akademikoa eta/edo zientifiko-teknikoa (gehienez 50 puntu).

1.a. azpirizpidea: Ekarpen zientifiko-teknikoak (45 puntu, gehienez). Izangaiaren espediente akademikoa eta beste curriculum merezimendu batzuk baloratuko dira, eta baita horien egokitzea prestakuntza eta esperientzia profesionalaren arabera egin beharreko zereginetara ere.

1.b. azpirizpidea: Mugikortasuna eta nazioartekotzea (gehienez 5 puntu). Baloratuko da hautagaiak estatuko eta nazioarteko zentroetan edota industria sektorean egindako egonaldiek ikerketa ibilbidean duten garrantzia eta eragina, egonaldiaren harrera erakundearen prestigioa eta bertan garatutako jarduera kontuan hartuta.

2. irizpidea. Hautagaiaren egokitza-pena egin beharreko ikerketa jardueretara (50 puntu, gehienez). Hautagaia garatu beharreko ikerketa-programa, -proiektu edo -jardueretara egokitzen den baloratuko da, aldeztu aurreko prestakuntzaren eta esperientziaren arabera. Horretarako, kontuan hartuko da proiektua egiteak bere ikerketa-karrerarako izango duen balio erantsia, eta baita zentroari eta talde hartzaileari ekarritako balioa ere.

Ebaluazio- eta hautaketa-prozesuan kontuan hartu beharko da ekainaren 1eko 14/2011 Legearen 4.bis artikulua 5. paragrafoan xedatutakoa.

Deialdi honen I. eranskinean deskribatutako ikerketa-proiektu bakoitzak Ebaluazio-Batzorde espezifiko bat izango du eta Batzorde horrek ebaluatuko ditu jasotako proposamenak. Batzorde hori honako hauek osatuko dute: ikerketa-proiektuaren ikertzaile nagusia izango den lehendakari batek, idazkari batek eta ikerketa-taldeko kide batek, guztiak EHUko plantillako doktoreak. Proposamenak ordeztu Batzorde bat jaso beharko du, absentsia- edo gaixotasun-kasuetarako. Batzordea, generoaren ikuspegitik, paritarioki osatuta egotea ahaleginduko da.

Horretarako, IA Eren Ikerketa Zuzendaritza Nagusiak Batzorde horri bidaliko dio behin betiko onartzen diren eskaerei buruzko dokumentazioa. Ebaluazio Batzorde bakoitzak gehienez 5 egun balioduneko epea izango du, dokumentazioa jasotzen duenetik zenbatzen hasita, jasotako eskabide bakoitzerako banakako ebaluazio zientifiko teknikoaren txostena egiteko, aurreko puntuan adierazitako irizpideen arabera. Ezarritako epea amaitu ondoren, Batzordeak jasotako eskabideen lehentasun proposamena igorriko dio IA Eri, eta, bertan, hautatutako pertsona zein den adieraziko du, eta baita uko eginez gero erreserban geratuko liratekeen proposamenen ordena eta puntuazioa ere.

8.3. Erabakia. Ebaluazio zientifiko-teknikoen txostenak jaso ondoren, IA Eren Ikerketa Zuzendaritza Nagusiak behin-behineko ebazpen-proposamena egingo du. Eskatzaileek beren eskaeraren ebaluazio-txostena posta elektronikoko bidez eskatu ahal izango dute, helbide honetara zuzenduta: pre-postdoc.dgi@ehu.eus eta gai bezala "FPI 2025" adieraziz.

Interesdunek 5 egun balioduneko epea izango dute egokitzen jotzen dituzten alegazioak aurkezteko. Epe horretan berariazko alegaziorik jasotzen ez bada, proposamena onartutzat joko da, eta alegatzeko eskubidea bertan behera geratuko da.

Epe hori igaro ondoren, IA Eren Ikerketa Zuzendaritza Nagusiak aurkeztutako alegazioak bidaliko dizkio dagokion ebaluazio-Batzordeari, horiek azter ditzan eta ondoren Ikerketako errektoreordeari dirulaguntza emateko behin betiko ebazpen-proposamena egin diezaion.

Kontratazioa emateko edo ukatzeko behin betiko ebazpen-proposamena IA Eren web-orrian argitaratuko da, eta argitalpen horrek interesdunei jakinarazteko balio izango du.

Nolanahi ere, kontratuak ezingo zaizkie esleitu deialdi honetan zehaztutako baldintzak betetzen ez dituzten hautagaiei. Egoera hori antzemanaz gero, behin hautaketa-prozesua amaituta bada ere, esleipendunak kontraturako eskubidea galduko du.

8.4. Administrazio-bidea agortzen duen behin betiko ebazpenaren aurka, honako aurkaratze-bide hauek aurkez daitezke, baina inola ere ez aldi berean:

1. Lehenengo eta behin, aukerako berraztertze errekurtsua aurkez dakioke erabakia eman duen organoari berari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Administrazio errekurtsu hori jarritz gero, eta errekurtsua jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, errekurtsua isiltasun negatiboagatik ezetsi dela ulertuko da. Horrela gertatuz gero, hurrengo atalean adierazitako auzibidera jotzeko aukera egongo da.

Kasu horretan, administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, errekurtsua ezetsitzat joa izan den egunaren biharamunetik kontatzen hasita (uztailaren 13ko 29/1998 Legea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena, 46. artikulua).

2. Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dago, erabaki hau argitaratu eta biharamunetik hasita (29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena: 8.3 eta 46. artikulua).

9. Oinarria. KONTRATUA FORMALIZATZEA

Kontratuak formalizatu baino lehen, esleipendunek laguntza lortzeko alegatu dituzten betebeharrak eta merezimenduen egiazkotasuna agertu beharko dute. Egiaztatu ezin balute, Ikerketaren arloko Errektoreordetza laguntza ukatzeko ebazpena emango du.

Kontratuen adjudikaziodunek dokumentu hauek aurkeztu behar dituzte IAEn:

- a) Eskarera adierazitako doktorego programan matrikulatu izanaren ordainagiria.
- b) Deialdi honen esleipendun izateko betebeharrak onartzen dituen agiria, tesiaren zuzendarien eta saileko, institutuko edo atxikitze guneko zuzendariaren oniritziarekin.
- c) Identifikazio fitxa, datu pertsonalak, bankukoak, eta Gizarte Segurantzako afiliazio zenbakia dituenak.
- d) Lanean hasi izanaren ziurtagiria.
- e) Ikerketarako Batzorde Etikoaren aldeko txostena, ikerketa-proiektuaren gaia dela-eta beharrezkoa den kasuetan.

Dokumentazio hau aurkezteko epea posta elektronikoz jakinaraziko zaie onuradunei, emandako eta ukatutako laguntzen behin-betiko ebazpenaren ondoren. Eskatutako agiriak epe barruan aurkezten ez badira, kontratuari uko egiten zaiola ulertuko da.

Kontratuak formalizatzeko eta sailetan hasteko data gehienez ere 6 hilabeteko epean izan beharko da, doktorego aurreko ikertzaileak prestatzeko jardura horiek eragin zituzten proiektuak emateko behin betiko ebazpena Estatuko Ikerketa Agentziaren web orrian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Kontratuak noiz formalizatuko diren eta, lanean hasteko eguna, behin-betiko ebazpenean adieraziko da, unean uneko hileko lehenengo egunean izango delarik ezinbestean.

Esleipendunak adierazitako egunean kontratua sinatuko ez balu edo lanean hasiko ez balitz, doktorego aurreko kontratuari uko egiten diola ulertuko da.

Eskaria ebaluatzean kontuan hartu diren baldintzak aldatzen badira, alta emateko tramitea eten egingo da, edo hala dagokionean, kontratua deuseztatu egingo da.

Laguntzak dirauen bitartean kontratatutako pertsonak uko egiten badu edo kontratua amaitzen bada, EHUK beste pertsona bat ebaluatu, hautatu eta kontratatu ahal izango du, Ministeritzaren Aginduen 12.1 oinarrian ezarritako baldintzak betez.

10. Oinarria. BATERAEZINTASUN- ARAUBIDEA

1. Finantzatutako kontratuak bateraezinak izango dira beste edozein kontraturen indarraldiarekin prestakuntza jasotzen ari diren doktoratu aurreko ikertzaileen aldetik, eta soldata izaera duen edozein zenbateko jasotzearekin, baldin eta horrek kalte egiten badio laguntzaren ikerketa- eta prestakuntza-helburuari, edota ordutegi berean gertatzen bada edota antzeko helburua duten beste laguntza batzuk jasotzen baditu.

2. Deialdi honetan kontraturiko ikertzaileek I+Gko proiektu eta kontratuetatik datozen soldataz kanpoko osagarriak jaso ditzakete, kontratu-loturarik ez dakarten irakaskuntza-lanengatiko osagarriak, ikertzaileen mugikortasuna sustatzeko laguntza osagarriak (laguntza

horiek berekin ez dakartenean lan-kontratuak formalizatzea), edota kongresu, bilera edo jardunaldi zientifikoetara joateko laguntzak.

Edonola ere, aurreko osagarriak edo laguntzak eratortzen badira, ez dute kaltetu edo eten behar laguntza honen helburua.

3. Deialdi honen bidez finantzatzen diren kontratuen kostua, ezin izango da finantzatu FSE+ekin bateraezinak diren finantzaketa-iturriekin, funts horren araudi espezifikoaren arabera.

4. Doktoratu aurreko laguntza honekin kontratatutako langileek, unibertsitate-sail bateko irakaskuntza-lanetan lagundu ahal izango dute, unibertsitateak berak baimena eman ondoren, gehienez ere 180 ordura arte laguntza osoan zehar, eta ezin izango dira urtean 60 ordu baino gehiago izan.

11. Oinarria. JARRAIPENA

11.1. Prestatzen ari diren doktoratu aurreko ikertzaileek egindako lanaren jarraipen zientifiko-teknikoa organo emaileari dagokio. Laguntza ematen duen organoak prozedura egokiak ezarriko ditu horretarako, eta beharrezkotzat jotzen dituen organo, Batzorde edo adituak izendatu ahal izango ditu, laguntzaren aplikazioaren jarraipena egiteko eta egokitzen jotzen duen informazio osagarria aurkezteko eskatzeko.

11.2. Kontratatutako doktoratu aurreko ikertzaileek jarraipen zientifiko-teknikoko bi txosten egin beharko dituzte, bata tartekoa eta bestea azkena, azken hori laguntza gauzatzeko aldi osoari buruzkoa. Horretarako, Estatuko Ikerketa Agentziaren webgunean dauden ereduak erabili beharko dituzte. Laguntza gauzatzen den hogeigarren hilabetearen eta hogeita batgarren hilabetearen artean, eta amaierako txostena, berriz, laguntza gauzatu den aldia amaitu eta hurrengo hilabetearen aurkeztu beharko da. Horretarako, ikertzaile onuradunak

IAErekin (rrhh-inves.dgi@ehu.eus) harremanetan jarri beharko dira txostena egiteko epea zabaltzen denean, prestatzen ari den ikertzaileak eta ikertzaile nagusiak Ministeritzaren aplikaziora dagozkien txostenak igotzeko prozedura koordinatzeko, azkenik IAEk txosten horiek balioztatu beharko baitu.

Txosten horietan, txostenean jasotako aldian egindakoaren eta prestakuntza-programaren betetze-mailaren deskribapena jasoko da, bai eta, hala badagokio, laguntza gauzatzeko gainerako aldirako lan-plana ere, eta berariazko erreferentzia egingo zaio doktorego-tesiaren egoerari, bilakaerari eta lorpenari. Txostenetan, egonaldirik egin bada, egonaldiaren deskribapena (zentroa eta talde hartzailea, iraupena, etab.) eta egindako jarduerak jasoko dira.

Horrez gain, jarraipen-txostenekin batera, prestatzen ari diren ikertzaileen curriculum vitae eguneratua ere erantsiko da.

Lehen aipatutako tarteko txostenaren ebaluazioaren emaitza erabakigarria izango da kontratuaren finantzaketaren jarraitutasunari eusteko. Tarteko txostena aurkezten ez bada edo balorazio negatiboa egiten bada, laguntza eten ahal izango da eta/edo ordaintzeke dauden urterokoak kobratzeko eskubidea galdu.

Azken txostena ez aurkezteak edo balorazio negatiboa izateak laguntza osorik edo zati batean itzultzea ekar dezake.

11.3. I+G zentroetan egonaldiak egiteko laguntza justifikatzeko, kontratatutako pertsonak honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du IAEn (rrhh-inves.dgi@ehu.eus), egonaldia amaitu eta hamabost eguneko epean:

- a) Gastuak likidatzeko dagozkien gastuen justifikazio egiaztagiria.
- b) Harrerako zentroko arduradunaren ziurtagiria, egonaldiaren hasiera eta amaiera egunak berariaz jasotzen dituen. Onuradunei egonaldia egiteko daten arabera emango zaie laguntza, zentroan sartu direla egiaztatu ondoren.
- c) Egonaldiaren azalpen memoria laburra, gehienez 500 hitzetakoa, tesi zuzendariaren adostasunaz. Bertan adieraziko da egonaldiaren emaitza.

Egonaldia gauzatzen ez bada, edo ezin badu behar bezala justifikatu, onuradunak jasotako zenbateko osoa itzuli beharko du.

Era berean, egindako egonaldia emandakoa baino laburragoa bada, kontratatutako pertsonak gauzatu gabeko aldiari dagokion laguntzaren zati proportzionala itzuli beharko du.

Behar ez bezala jasotako zenbatekoak Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta hura garatzeko arautegian ezarritakoaren arabera itzuliko dira, eta kontratatutako pertsonaren nominatik murriztu ahal izango dira.

12. Oinarria. KONTRATUA ETETEA, UKO EGITEA ETA DEUSEZTATZEA

12.1. Kontratua eteteko arrazoiak Ministeritzaren Aginduaren 25.7 artikuluan daude araututa.

12.2. Aldi baterako ezintasunak, haurdunaldiko arriskuak, amatasunak, adopzioak edo harrerak, edoskitzeak eta aitatasunak kontratuaren iraupena eten egingo dute. Laguntza honen onuradunak IAEn (rrhh-inves.dgi@ehu.eus) jakinarazi beharko dio 10 egun balioduneko epean, etetea eragin duen gertakaria gertatzen den egunetik zenbatzen hasita, eta kasu bakoitzean eskatzen diren egiaztagiria aurkeztu beharko ditu.

12.3. Deialdi honen bidez kontratatutako langileen uko-egiteak onuradunak jakinarazi beharko ditu, uko-egiteak ondorioak izan baino 10 egun baliodun lehenago gutxienez. Komunikazioa idazki bidez egingo da, eta ondorengo helbide elektronikora bidaliko da: rrhh-inves.dgi@ehu.eus

Horrez gain, kontratatutako ikertzaileak bere ukoa jakinaraziko dio Irakasle eta Ikertzaileen Errektoreordetzari (neg.investigadores@ehu.eus).

12.4. Lan kontratua ondorengo arrazoietako batengatik etengo da:

- a) Kontratuak berak uko egitea.
- b) Kontratuaren indarraldia amaitzea.
- c) Eskabidean adierazitako doktorego-programan matrikulatuta egoteari uztea.
- d) Laguntza emateko aintzat hartutako betebeharrak bete ez edo baldintzak aldatzea, barne izanik doktorego programako matrikula ez egitea.

- e) Tesi zuzendariak eta doktorego programaren arduradunak hala eskatuta, tsi zuzendariak eta doktorego programaren arduradunak abalatutako txostenak arrazoituz gero.
- f) Gerora sortutako bateraezintasunen batengatik.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Deialdi honek administrazio bidea agortzen du eta honen kontra administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke Bilboko Administrazio Auzietako Epaitegietan, bi hilabeteren epean deialdia argitaratzen den egunetik kontatzen hasita. Hala izanik ere, aukerazko birjartze errekurtsoa jarri ahal izango da erabakia argitaratu eta hilabetearen epean Ikerketaren arloko Errektoreordearen aurrean, 39/2015 legearen 123. artikuluekin bat etorrita.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Honako deialdi hau Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratzerakoan sartuko da indarrean.

Leioa, 2025eko urriaren 10ean.

Juan Ignacio Umerez Urrezola

Ikerketaren Arloko Errektoreordea